

ESKOZIAREKIN GAZTE TRUKEA EGITE ALDERA, GORDEXOLAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZA LORTU AHAL IZATEKO KREDITUEN KUDEAKETARAKO ARAUAK.

1.- Parte-hartzaileen betekizunak.

Parte-hartzaileak 1995 eta 1998. urteen bitartean jaiok izan beharko dira (14 eta 17 urte bitartekoak), bi urteak barne; halaber, Gordexolan 2012ko martxoaren 1ean baino lehen erroldatuta egon beharko dira.

2.- Kreditu-sistemen arautzea.

Proposaturiko jarduerak bi mila eta hamabiko apirilaren 11tik ekainaren 4ra bitartean egin beharko dira.

3.- Udal ekarpena. Trukea bi pertsonak egingo dute eta Udalak 1.200 € gehi BEZ emango du pertsona bakoitzarentzat. Udalak diru hori trukea antolatzen duen enpresari emango dio.

4.- Kredituak emate aldera, jarduerak eta erreferentzia-zentroak honakoak izango dira:

- a) Santo Hospital de Gordejuela fundazioa. Erreferentzia-zentroa: adinekoen komunitate-etxebizitza.
- b) Zubiete zentroa. Erreferentzia-zentroa: Zubiete zentroa.
- c) Ezkerralde, Meatzalde eta Enkarterriko emakumeen topaketa . Erreferentzia-zentroa: Gordexolako Udala. (Berdintasun Arloa).

5.- Jarduerengatiko puntuen ematea.

a. Erreferentzia-zentroek jendaurrean jarriko dituzte bere zentroan egin daitezkeen boluntariotza-ekintzak.

b. Boluntariotza-ekintzetarako eskaerak erreferentzia-zentroetan egin ahal izango dituzte parte-hartzaileek. Parte-hartzaileek eskabide bakoitzean ezin izango dituzte bi ordu baino gehiago egin zentro bakoitzean. Zentro horretan ezin izango da ordu gehiago egiteko eskatu, aldez aurretik ez badituzte aurretik eskaturiko orduak egin .

c. Erreferentzia-zentroak eskabideen erregistroa egin beharko du, eskabidearen aurkezpenaren hurrenkeraren arabera antolatuta, eta eskatzaile bakoitzari eskaera-zenbaki bat emango dio.

d. Erreferentzia-zentroak boluntariotza-ekintzak eskaintzeko orduan, eskabideen hurrenkera bete beharko dute. Hori dela eta, interesatuekin harremanetan jarri beharko da boluntariotza-ekintza egiteko. Interesatua arrazoi justifikatu batengatik ezin bada bertaratu, bere txanda gordeko da. Telefonoa ez hartzea edo pertsonarekin harremanetan jarri ezin izatea arrazoi justifikatuarengatik ez bertaratzea bezala hartuko da. Ezin bada bertaratu eta ez badu arrazoi justifikaturik aurkezten, interesatuak dagokion txanda galduko du eta beste eskabide bat aurkeztu beharko du boluntariotza-ekintza bat egiteko.

e. Pertsona batek boluntariotza-ekintza bat hitzartu badu eta ezin dela bertaratu egun bat lehenago abisatu ez badu eta ez badago arrazoi justifikaturik, erreferentzia-zentroan lortu dituen puntu guztiak galduko ditu.

f. Jarduera egin eta gero, erreferentzia-zentroak eginiko ekintzaren frogagiria emango du. Boluntariotza-ekintza noiz egin duen eta zenbat ordu egin dituen agertuko dira frogagiri horretan.

g. Erreferentzia-zentroek hamabost egunean behin boluntariotza-ekintzak egin dituzten pertsonen eta eginiko orduen zerrenda emango du Gordexolako Udaletxean.

h. Gazteria zerbitzuak hamabostean behin parte-hartzaile bakoitzak lortu dituen puntuak argitaratuko ditu webgunean, gazte txokoko oholtzan eta udal liburutegian.

i. Maiatzaren 25a (ostirala) azken eguna izango da jarduerak egiteko eskabidea aurkezteko.

j. Behin betiko sailkapena bi mila eta hamabiko ekainaren 10ean argitaratuko da Udalaren webgunean, gazte txokon eta liburutegian.

k. Puntuazioa puntu batekoa izango da eginiko ordu bakoitzeko.

6.- Irabazleak. Puntu gehien lortuko dituzten bi pertsonen trukea egiteko eskubidea izango dute. Berdinketarik egonez gero, berdinketa zozketa publikoz ebatziko da.

7.- Trukeari uko eginez gero, zerrendaren hurrenkeraren arabera hurrengoa dagoenak izango du eskubidea eta horrela jardungo da zerrendaren amaierara arte.

8.- Desadostasunak. Erreklamaziorik egonez gero, Gordexolako Udaletxean aurkeztuko dira. Erreklamaziook batzorde batek ebatziko ditu. Batzorde horretan udal talde bakoitzeko zinegotzi batek, Gordexolako Udaleko teknikari batek eta Gazte Txokoren arduradunak hartuko dute parte.